ELISSALDE Jean

# MUNDUAREN AKANBTZA

## Zerbitzari

------

| | | |
|---|---|---|
| Pantchika | ) | |
| Gachucha | ) | berrogoi urthe |
| Pachkalina | ) | |
| Manana | | amatcho chaharra |

o----------o

## I

Pach xxx eez dakizu berri ?
pan zer da berri bada ? zer da ?
Pac Manana berriz ere zernahi erranka arizana dela zure kontra
Pan Nun ?
Pac Beltzaeneko artho churitzetan,eta hamazazpi lagunen atzinean eiki
Gac Atso tzarra Lau hortz bakhar izanki eta hek ausikitzeko .
Pan Eskuen zikintzea beldur ez banintz zer perakaldia har lezaken gibelaldian .
Gac ez othe dinagu ba zerbeit gisaz ichil arazten ahal ?
Pac No . badakizue zer heldu zautan gogorat .Ilhar bat behar diogula aphirilaren lehen huntan bere tzakeria bezain handia iretsarazi.
Pan Merezi liken segurki,bainan zer iretsaraz ?
Pac Munduaren akanbantza dela .
Gac Muduaren akambantza dela ez othe dun ilhar handichkoa ?
Pac Ta .. errozue Herrian irakurtu duzuela,ni athe gibel hortan egonen nun, eta Herriaren errana finkatzeko betbetan sartuko.No hain chuchen huna nun heldu den, Gordetzen nun .
Pan Pachkalina horrek zazpi debru bederen baditin galkoan Mananak ez zakin irakurtzen sinhextsiko gaitin .
Gac Ez dezagun hatik irririk egin,Hemen dinagu atso zitzila .

===========

## 2

Manana Agur haur pollitak .
Pan agur ematto maithagarria
Gac Agur herriko lili guzien ederrena
Ma zer ari zirezte bade hemen ?
Pan denbora pasa elheketa
Gac eta bazinaki zer erraiten ginuen doidoia
Man ez araiz Errepublikako presidentarekin ezkontzen zirela eta minichtro nagusiarekin Pantchika ?
Pan ezkontzak eta gaineratikoak burutik uzten ahal ditugu Manana zuk eta guk .
Gac laster hil behar dugu .
Man Zer ditutzue elhe chocho horiek ?
Gac Egun dugu munduaren akhabantza
Ma ha,ha,ha,ha,
Pan ez da hor irri egitekorik
Man eta nork erran dautzue hori ?
Pan Herriak
Man paperak oro harzen ditu haurrak .
Gac Badakigu bainan oraikoan ez da dudarik .
Pan Lafite Jaun aphezak berak errana da .
Man Lafite Jaun aphezak ?

| | |
|---|---|
| Gac | Eta aphezek ez dute trufarik holakoetan . |
| Man | nahi duzue ichiltzen ziztela ene bihotzeko minaren gatik bederen |
| Gac | Barkatu Manana,bainan zer nahi duzu, goizchago edo beranchago ethorri behar uen guzien buruan . |
| Pan | zuretzat bezan ikharagarri da guretzat,biziari oraino irriz ginauden gu ,eta zu jada adinak eremana . |
| Gac | Akhabo gure berrogoi urthe ederrak,akhabo gure osagarria, akhabo gure ametsak . |
| Pan | Akhabo oro,akhabo ichtantean munduarekin .. bainan legea lege . |
| Gac | Jainkoa nausi eta nahi duenean mundua lehertzen ahal . |
| Man | oi ikharagarrien ikharagarria ,bainan ez duzue nitaz trufatu nahi bederen ? |
| Pan | Herria irakur zazu . Huna |
| Man | ez dakit irakurzen,dohakabea, irakur zadazu zuk . |
| Pan | Mundua akhabo da igandean arratsealdeko bortzak eta hamazazpietan. |
| Man | Ama maitea, Ama maite maitea, oren erdi baten buruan mundua akhabo, oi ene bihotz gaichoa, |

Pachkalina sartzen da

- III -

| | |
|---|---|
| Pac | Manana zer duzu bihotzetzari hola lotzeko ?Zer berri da ? |
| Man | Berriak zuk behar dauzkidatzu eman, ene herritar guzietarik maitagarriena .Egia da Herriak ekartzen duena ?Mundua bortz eta zamazpietan akhabo dugula ? |
| Pac | ez da hor den gutieneko dudarik, (jendeari buruz ahapetik) zer irriak egin behar ditudan hementche . |
| Man | ez dela den gutieneko dudarik ? |
| Pac | ez amatto ez, Berzalde hauche aitortu behar dautzut,nik hori banakien atzo arratseko . |
| Man | nundik ? |
| Pac | tezefak erranik . |
| Man | tezefa eta oraiko mekenika tzar guziak ifernuko debru beltzek ereman ditzatela . |
| Gac | Zaude trankil,oro eremanen ditu eta tezefak eta ni,eta zu,eta zureki |
| ~~Pac~~ | hainberze atchikitzen zinion gathu pollit hura ? |
| Man | ni hiruetan hogoi ta urthetan joiaitea ez aski, hura sei ilabatetan joan behar Oi ene gathua, bainan nola akhabatuko da mundua . |
| Pac | huna izar buztan luze bat |
| Gac | Buztan luze luze bat |
| Pan | luze luze luze bat |
| Man | oi ene bihotza |
| Pan | Oi zure gathua |
| Gac | zure gathu pollita |
| Pac | beraz izar buztan luzeluze luze luze bat jauziko da zeruan, |
| Man | oi ene bihotza |
| Pan | oi zure gathua |
| Gac | zure gathu pollita |
| Pac | jauzi eginen du izarrak eta mundua lerhertuko du zorri bat bezala |
| Man | ai ai ai ene bihotza |
| Gac | zure gathu pollita |
| Pan | ai ai ai zure gathua |
| Pac | ikusten duzu Manana maitea zer saltsa eginen dugun ichtantean ? |
| Man | ai,ai,ai,ei. |
| Pan | Izar buztan luzea ikusiko dinagu bedren zerutik jausten . |
| Pac | batere Pantchika,gu ohartu gabe oro nahas-mahas izanen ditun hi,ni,gathua,tezefa,Gachucha,,Manana eta oro, odoletan porroskatuak |

Man zaude othoi ichilik ,hilarazi behar nuzu .

PAn bai ikharagarri da .

Gac Ikharagarri baino ikharagarriago,ez baita gehiago botz minuta tipi baizik .

Man barka Jauna barka .

Pac Bai barka gure bekatu guziak,eta bereziki gure mihi gachtoenkin lagunaren kontra egin ditugunak Manana .

Man bai barka

Gac laur minuta

Man hartzen dut chede zina

Pac sekulan nehoren kontra gehiago ez mintzatzeko .

Pan agian ez .

Gac bi minuta

Man oi ene bihotza

Pac ez dakit ez den zerbeit hala emaiten baithant jada zerutik abiatzen izar buztan luzea

Man ai ama, ai ama

Gac minuta bat, minuta tipi bat .

Pac heriotzearen lanbroa jada sanditzen dut begitartean .

Pan ez dakit ez ditudan urrunerat aditzen herriko gathu guzien marrumak .

Man oi ene gathu gaichoa,nun othe dabila .

Gac minuta erdi bat .

Pac ohartu gabe lehertzeko etazn gaiten zabal zabala .
etzaten dira lauak .

Man nun othe da ene gathua
~~hemen ichiltasun osoa minuta batez bederen~~ .

Pac zenbat orenak ditun Gachucha

Gac ago ichilik ez nun oraino hila

Pac zenbat orenak ditun, erran .

Gac muntra behatuz ) bortzak eta hemeretzi .

Pac iragana dun beraz tenorea ,eta ez gaitun hil, Chuti Gachucha Chuti Pantchika, Chuti Manana

Pan mundua ez baita akhabatu ?

Man eta ni ez bainiz hila, Herriak zakuan sartu gaitu beraz .

Pac ez Manana, Herriak ez gaitu zakuan sartu, ez baitu behin ere munduaren akhabantzarik egungotxo aiphatu .

Man horuek nitaz trufatu zarazte beraz ?

Hiruek gehiagokorik merezi zuten gure kontra atheratu ditutzun elhe tzarrek, kasu emazu Manana,

Pac kasu zuri eta zure gathuari, brida zazu hobeki zure mihia Jainkoak ez dautzu emana pozoinaren hedatzeko,bainan ba ongiaren hedatzeko .

Gac zure onetan ez ahantz Manana .

Zernitzari .

-----